

Hitz-zatikatzea. Irizpideak. (2013ko azaroan)

InDesignerako Xuxen euskararako zuzentzaile ortografikoaren eta euskararako hitz-zatikatzailearen garapenean erabilitako irizpideak zerrendatuko dira dokumentu honetan.

Zuzentzaile ortografikoari dagokionez, gaur egun merkatuan daukagun Xuxen zuzentzailearen azken bertsioa erabili da. Hitz-zatikatzaileari dagokionez, euskaraz idaztean lerroz aldatzean hitzak zatitzeko baliatu beharreko irizpideak berrikusi dira Elhuyarren. Horri buruzko azalpenak emango dira dokumentu honetan.

Hitzak nola zatitu. Oinarria.

Hitzak silabaka zatitu behar dira, beharra egokitzen bada. Zentzuak ez ezik, Euskaltzaindiaren 13. arauak ere hala agintzen du euskararako:

13. LERROZ ALDATZEAN MARRATXOAK NOLA JARRI

Hizkuntzetan bi irizpide nagusiz baliatzen dira idazleak lerroz aldatzean hitza ezinbestean zatitu behar dutenean eta, hortaz, marratxoa jarri behar dutenean: marratxo hau morfemak kontuan harturik jartzen da edo marratxoa silabak bereiziz jartzen da.

Euskararen kasuan, morfemak hartuko balira kontuan, honela banatuko lirateke hitzak: zakurr-a; due-la; dute-n; gizon-ik; maitasun-a, e.a.

Morfemen ordeztu silabak hartzen badira, berriz, honako hau geratzen da: za-ku-rra; du-e-la; du-ten; gi-zo-nik; mai-ta-su-na, e.a.

Ikusten den bezala, zein den aukeratzen den irizpidea, ondorioak ere aski desberdinak dira, nahiz batzuetan bat etor daitezkeen bi irizpideak: ke-a hitzean, esate baterako.

Morfemak hartuko balira kontuan badirudi arazo handiak sor litezkeela: itxuragabekeriak (du-zue-n; de-n-a); morfemak non hasten diren eta non bukatzen zehaztea ez da gauza erraza (gizon-e-k; g-en-bil-tza-n; Andoni-re-kin) e.a. Gainera, bistan denez euskal idazle eta hiztunek askoz ere garbiago dute silabaren intuizioa morfemarena baino.

http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0013.pdf

Oinarrizko arau horretatik aurrera, ezer gutxi esan da, baina badira zalantza sortzen duten kasuak. Labur jasoko ditugu zenbait kasu, eta nola jokatzeko den han eta hemen, guk dakigun heinean:

Marra lerro-bukaeran eta hurrengoaren hasieran?

Ez. Marra bakarra erabiltzen da gaur egun, nahiz eta, garai batean, hitz-elkarketaren kasuan (eta hitz-elkarketaren kasuan bakarrik, ez hitz baten mozketan) bi marra jartzeko irizpidea ere erabili den:

Egin izan da:

tutakoa (H). eredu honetan joko dugu gizaki-
-kopurua jaiotze-indizeagatik handitzen dela

Gaur egun:

tutakoa (H). eredu honetan joko dugu gizaki-
-kopurua jaiotze-indizeagatik handitzen dela

Elhuyar aldizkaria, 296 zk., 52. or.

Beraz, esan liteke lerro-hasieran marra ager daitekeen kasu bakarrak era honetakoak direla:

Kontuan izan behar da ekonomia-arrazoiak eta
-irizpideak ere aldatu direla garai hartatik hona.

Bestalde, honelako adibideak ere topatu ahal izango ditugu, eta hauek ere ontzat emango dira; liburuak maketatzean Elhuyarren horrela egin izan da.

zientzia-, teknologia-
eta berrikutza-gaietan

Silaba bakarra ez utzi?

Zenbaitetan, esan izan da ez dela komeni silaba bakar bat uztea (goiko lerroan nahiz behekoan), baina praktikan bete ezina da irizpide hori (besteak beste, lau silaba baino gutxiagoko hitzik ezin izango litzateke moztu, horren arabera).

Adibidez, honela dio EIMaren estilo-liburuko *Ortotipografia* atalak, 53. orrian:

1. Lerro bukaeran, hitzak silabaka zatitu behar dira; baina silaba bakarreko zatirik utzi gabe inongo lerrotan. Hitzaren lehen zatiari marratxoa eransten zaio.

Baina, gezurra badirudi ere, esaldi horretan bertan *silaba* hitza zatituta dago, bi lerrotan, honela: *silaba*. Silaba bakarra, beraz, bigarren lerroan, esaldi horretan bertan agintzen denaren kontra. Orri berean, beheaxeago, *errepika-tu* hitz-mozketa dugu.

José Martínez de Sousaren *Ortografía y ortotipografía del español actual* liburuan, aldiz, hizki bakarreko silaben inguruko irizpide bat zehazten da.

Cuando una vocal forme sílaba por sí misma al principio o al final de una dicción, no puede dejarse aislada a final o a principio de líneas.

Beraz, hitzak zatitzeko orduan ez dugu honelakorik egingo: *i-nertzia*, *inertzi-a*.

Bi marratxo segidan ez?

Gerta daiteke bi marratxo suertatzea elkarren segidan, bat hitz-elkarketarena eta bestea lerro-bukaerako mozketarena. Bistan da gerta daitekeela eta gertatzen dela. Zenbait argitalpenetan egin daiteke ahalegina halakoak saihesteko, eskuz, baina nekez pentsa daiteke, gure ustez, hori automatikoki eragozteko lan teknikoa egitea merezi duenik.

Aipatutako *Ortotipografía* liburuan, esate baterako, adibide argigarriak ageri dira aipatutako orrian bertan (alegia, *izozki-sal-tzaileak* eta *-konpon-tzaileak*):

4. Hitz elkartuaren osagaietako bat bakuna ez denean, errepikatu egin behar da marratxoa.

Lehen osagaia anizkuna denean, honela, adibidez: edari- eta izozki-sal-tzaileak.

Bigarren osagaia anizkuna denean, honela: auto-saltzaile eta -konpon-tzaileak.

Edonon ikusten ditugu halakoak. Elhuyar aldizkarian, orri bat zoriz hautatuta (296 zk., 52. or.), esate baterako:

azeri-ko-
purua

jaiotze-in-
dizea

Interneteko helbideak eta helbide elektronikoak nola zatitu?

Orokorrean, ahal dela ez dugu honelako zatiketak egingo:

Euskarazko zientziaren ataria izateko bokazioa du **Zientzia.net**-ek, eta horregatik ez ditu bere bilatzailea eta antzeko edukietarako estekak barne-edukira mugatzen.

Hitzak zatitzeko arau edo irizpide berezirik finkatuta ez dagoen arren Interneteko helbideei dagokienez, horiek ez zatitzea izango da jarraituko dugun irizpide orokorra.

Euskarazko zientziaren ataria izateko bokazioa du **Zientzia.net**-ek, eta horregatik ez ditu bere bilatzailea eta antzeko edukietarako estekak barne-edukira mugatzen.

Helbide elektronikoekin ere gauza bera gertatzen da; ez dugu egingo itxura honetako zatiketak:

Kontaktuan jartzeko **izena@elhuyar.com**-era idatzi.

Zuriune banaezina

Badira zuriune banaezina duten kasuak ere; bi hitzek eta hutsune batek elementu bakar bat sortzen duten kasua da hori. Horrelakoetan, elementua osorik lerro bakarrean jarriko da.

Hona hemen zuriune banaezina duten elementu batzuk: 3 km, % 45 eta 500 g.